

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 30/2014 Foru Dekretua, ekainaren 10ekoa, aldatzen dituena martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonetik eragiketei buruzko informazioa emateko eginbeharra arautu zuena, eta maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua, fakturatzeko eginbeharrak arautzen dituen arautegia onartu zuena

Honako foru dekretuak hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharraren arauketak aldatzen du.

Jabetza horizontalaren araubideko ondasun erkidegoei eta gizarte erakunde edo establezimendu jakin batzuei aitortzea aurkezteko betebeharra ezartzen zaie, zenbait salbuespenekin.

Era berean, aldaketa batzuk sartzen dira, balio erantsiaren gaineko zergan kutxa irizpidearen araubide berezi berria sortzearen ondorioz.

Azkenik, salbuetsita egoteko zegoen 3.005,06 euroko gutxieneko muga kentzen da, pertsona edo erakunde batek administrazio publiko desberdinetatik jaso dituen dirulaguntza guztien aitortzea egite aldera.

Fakturazioko betebeharren arautegian kutxa irizpide berriaren erreferentziak sartzen dira eta zerbitzu emate jakin batzuetarako faktura egiteko betebeharra ez izatearen salbuespena aurkezten da.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostena aztertu da.

Hori dela eta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharra arautzen duena

Bat. 1. artikuluko 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da idatzita:

"1. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirugarren pertsonetik eragiketei buruzko urteko aitortzea aurkeztu behar dute hauek: pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta foru arau honetako 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundeek, baldin eta enpresa edo lanbide jarduerak egiten badituzte.

Horretarako, enpresa edo lanbide jardueratzat hartuko dira hala definitu direnak urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzkoaren, 5. artikulua Bi idatz zatian. Era berean, halakotzat hartuko dira Balio erantsiaren gaineko zergaren Foru Dekretuaren 5. artikulua Bat idatz zatian enpresaburu edo profesionalen kalifikazioa dutenak, e) letran xedatutakoak izan ezik.

Bai ekainaren 21eko 49/1960 Legea, jabetza horizontalari buruzkoa, aplikagarri zaien erakundeek, bai urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 79. artikuluan aipatzen dituen gizarte izaerako erakunde edo establezimendu pribatuek, hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortzearen sartuko dute enpresako edo

lanbideko jardueraz kanpo egin dituzten ondasun edo zerbitzuen eskuraketak, nahiz eta izaera horretako jarduerak ez egin.

Bi. 2. artikulua b) idatz zatiak aldatzen da, eta honela geratzen da:

“b) Errenta egozketaren araubidean dauden pertsona fisikoak eta erakundeak, Balio erantsiaren gaineko zergaren karga araubide erraztuan edo nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun errekaruaren araubide berezian jasaten duten jarduerak direla eta, faktura egitea eskatzen duten eragiketak izan ezik.

Era berean, Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua duten subjektu pasiboek hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortzean sartuko dituzte egin diren ondasun eta zerbitzu eskuraketa guztiak, baldin eta eskuraketa horiek jasotako fakturen erregistro liburuan idatzi behar badira apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 40.1 artikuluan araututakoaren arabera.

Hiru. 3. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“3. artikulua. Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitortzearen edukia.

1. Foru dekretu honen 1. artikulua 1. idatz zatiak aipatzen dituen zergapekoek urteko aitortzean jaso behar dute zein pertsonarekin edo erakunderekin egin dituzten eragiketak, haien izaera edo ezaugarriak edozein direla ere, baldin eta eragiketa horiek pertsona edo erakunde bakoitzarentzat oro har 3.005,06 eurotik gorakoa bada kasuan kasuko urte naturalean.

Aurreko leerroaldeak aipatzen dituen eragiketa horiei buruzko informazioa hiru hilabeterik behin xehatuta emango da. Horretarako, ondasun eta zerbitzu emateak eta eskuratzeko bakoitza bere aldetik zenbatuko dira.

Aurreko leerroaldeetan xedatutakoaren ondorioetarako, eragiketatzat hartuko dira ondasun emateak eta zerbitzu eskaintzak zein horiek denak eskuratzeko. Bi kasu horietan, betiko eta ohiko eragiketak, noizean behingo eragiketak, higiezin eragiketak eta ematen edo jasotzen diren baina itzultzekoak ez diren dirulaguntza eta laguntzak sartuko dira.

Hurrengo leerroaldean adierazten diren salbuespenekin, urteko aitortzean Balio erantsiaren gaineko zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun eta zerbitzuen emate edo eskaintzak eta eskuratzeko sartuko dira, bai eta aipatutako zergari lotu gabeko edo salbuetsitakoak ere.

Aseguru erakundeek seguru eragiketak sartuko dituzte beren urteko aitortzean. Horretarako, aseguru lanetan ordaindutako prima eta kontraprestazioen eta kalteordain edo sarien zenbatekoak hartuko dira kontuan, eta hurrengo paragrafoko a) letran xedatutakoa, ez da, inolaz ere, eragiketa horietan aplikatuko.

Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren, balio erantsiaren gaineko zergarenaren, kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien subjektu pasiboek eta horretan sartuta dauden eragiketen jasotzaile diren subjektu pasiboek urteko aitortzean sartu behar dituzte urte naturalean sortutako zenbatekoak, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 75. artikuluan xedatutako sortzapenerako arau orokorraren arabera; era berean, eragiketa horiek urte naturalean sortutako zenbatekoen urteko aitortzean sartu behar dira, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 163 terdecies artikuluan xedatutakoaren arabera.

Idatz zati honetako bigarren paragrafoan xedatutakoaren salbuespen gisa, ondorengo subjektu pasiboak eta erakundeek urteko aitortzean adierazi behar duten informazio guztia emango dute, urteko zenbatekoan adierazita: urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, xedatutako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien subjektu pasiboek eta ekainaren 21eko 49/1960 Legea, jabetza horizontalari buruzkoa, aplikagarri zaien erakundeek. Era berean, subjektu pasiboek, kutxa irizpidearen araubide berezian sartuta dauden eragiketen hartzaile badira, aurreko idatz zatiak aipatzen diren eragiketa horiei buruzko informazioa eman beharko dute urteko zenbatekoan adierazita.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, aitortpena egiteko betebeharretik salbuetsita daude eragiketa hauek:

a) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak, baldin eta zergadunak faktura egin eta eman beharrik eduki ez badu, eta hartzailearen identifikazio datuak ezarri beharrik eduki ez badu edo Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian, eskuratzailerak emandako ordainagiria sinatu beharrik eduki ez badu.

b) Zergapekoaren enpresa eta lanbide jardueraz kanpo egindako eragiketak.

c) Balio erantsiaren gaineko zergari lotu gabeko eta salbuetsitako ondasun eta zerbitzuen emate edo eskaintze eta eskuratzeko doakoak.

d) Pertsona fisikoek edo nortasun juridikorik gabeko erakundeek enpresa edo lanbide jardueratik kanpo egindako errentamenduak, Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsiak.

e) Gai tinbredunen edo estankodunen eta posta frankeoko zeinudunen erosketak, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 136.1.3.º a) artikuluan jasotako definizioaren arabera bildumarako gaitzat hartzen direnak salbu.

f) Urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 20. Hiru artikuluan aipatzen dituen gizarte izaerako erakunde edo establezimenduek egindako eragiketak, bere jarduerako sektorekoak direnak, baldin eta horien ondasun eta zerbitzu emateak zerga horretatik salbuetsita badaude, foru dekretu honen 1. artikuluko 1. idatz zatiak xedatutakoaz gain.

g) Salgaien inportazioak eta esportazioak, bai eta zergapekoak Espainiatik kanpo daukan establezimendu iraunkorretik edo establezimendu iraunkorarentzat zuzenean egindako eragiketak ere. Salbuespena izango da zergapekoaren establezimendu horren egoitza Espainian egotea eta eragiketaren kide den pertsonak edo erakundeak Espainiatik kanpoko establezimendu batetik jardutea.

h) Espainiako penintsulatik edo Balear uharteetatik Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara, eta alderantziz, bidalketak egitea dakarten ondasun emate eta eskuratzekoak.

i) Oro har, aldiro zerga administrazioari informazioa emateko beharra sortzen sortu duten eta horren ondorioz foru dekretu honetan xedatutakoaz bestelako aitortpen berezietan sartuta dauden eta eduki bera duten eragiketak.

3. Foru dekretu honen 1. artikuluen 2. paragrafoak aipatzen dituen zergapekoek, gainera, eragiketen urteko aitortpenean jaso behar dute zein pertsonari edo erakunderi eskuratu dizkion ondasunak edo zerbitzuak enpresa edo lanbide jardueratik kanpo, haien izaera edo ezaugarriak edozein direla ere, baldin eta eragiketa horiek pertsona edo erakunde bakoitzarentzat oro har 3.005,06 eurotik gorakoa bada kasuan kasuko urte naturalean. Hona salbuespenak:

a) Salgaien inportazioak.

b) Espainiako penintsulatik edo Balear uharteetatik Kanariar uharteetara, Ceutara eta Melillara, eta alderantziz, bidalketak egitea dakarten ondasun eskuratzekoak.

c) Artikulu honetako 2. idatz zatiko e) eta i) paragrafoetan ezarritakoak.

Era berean, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, sektore publikoko kontratuen legeari buruzko testu bateratua onartzen duenak 3. artikuluen 2. idatz zatian aipatzen dituen herri administrazioetako entitateek aitortpen horretan adieraziko dituzte beren dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituzten pertsona edo erakunde guztiak, zenbatekoa edozein dela ere, kasu horretan aurreko idatz zatiko i) paragrafoan aurreikusitako salbuespena aplikatzea gorabehera.

4. Foru dekretu honen 1. artikuluen 3. idatz zatian aipatzen diren zergapekoek agindu horiek aipatzen dituen ordainketak adierazi beharko dituzte hirugarren pertsonekin izandako

eragiketen urteko aitorpenean, egotzitako pertsona bakoitzari guztira emandako diru kopurua 300,51 eurotik gorakoa denean.

5. Uztailaren 21eko 49/1960 Legea, jabetza horizontalari buruzkoa, aplikatzekoa duten erakundeek ez dute honako eragiketak egiteagatik foru dekretu honetako 1. artikulua 1. idatz zatiak aipatzen duen aitordena egiteko betebeharra izango:

– Komunitateak erabiltzeko eta kontsumitzeko argindarra eta edozein erregai mota hornitzeko eragiketak.

– Komunitateak erabiltzeko eta kontsumitzeko ura hornitzeko eragiketak.

– Zona eta elementu komunekin lotutako ondasun eta eskubideak aseguratzeak diren aseguruetatik datozen eragiketak.

6. Uztailaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 20. Hiru artikuluan aipatzen dituen erakundeek edo gizarte izaerako establezimendu pribatuak ez dute honako eragiketak egiteagatik foru dekretu honetako 1. artikulua 1. idatz zatiak aipatzen duen aitordena egiteko betebeharra izango:

– Ura, argindarra eta erregaiak hornitzekoak.

– Aseguruetatik datozenak.”

Lau. 4. artikulua 1. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“1. Hirugarren pertsonekin izandako eragiketen urteko aitorpenean datu hauek jasoko dira:

a) Izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik; baita identifikazio fiskaleko zenbakia eta aitordena egilearen zerga helbidea ere.

b) Izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik, baita aitorpenean sartutako pertsona edo erakunde bakoitzaren identifikazio fiskaleko zenbakia ere. Hala dagokionean, establezimenduen Estatu kideak enpresaburu edo profesionalari emandako identifikazio fiskaleko zenbakia, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

c) Aitordenearen kasuan kasuko urte naturalean pertsona edo erakunde bakoitzarekin izandako eragiketen guztirakoa, eurotan.

d) Beste eragiketa batzuetatik bereiz adierazi beharko dira batez ere negoziotarako lokalen errentamendutarako eragiketak, nahiz eta alde beren artean egin, eta modu bateratuan egingo balira bezala jo, foru dekretu honen 3.1 artikuluan xedatutakoren ondorioetarako. Kasu haueetan, errentatzaileak errentadunen izen-abizenak edo sozietatearen izena osorik eta identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharko du; baita errentan emandako higiezinak kokatzeko beharrezkoak diren katastro erreferentziak eta datuak ere.

e) Aseguru erakundeek aseguru eragiketak beste eragiketa batzuetatik bereiz adierazi beharko dituzte. Horretarako, aseguru lanetan ordaindutako prima eta kontraprestazioen eta kalteordain edo sarien zenbatekoak adieraziko dira. Identifikazio hori bereiz egin behar izan arren, pertsona eta erakunde bakoitzarekin izandako eragiketen guztirako zenbatekoan sartu beharko da, foru dekretu honen 3.1. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

f) Bidaia agentziek bereiz adieraziko dituzte zerbitzu emateak, horiek kontratatzean bitartekari gisa jarduten dutenean, hau da, besteren izenean eta kontura, eta horretarako, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Erregelamenduak, fakturazioko betebeharrak arautzen dituenak, hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, bereiz adierazi beharko dira garraio zerbitzuetan, bidaia agentziak hartzaileari ematen dizkion bidaiariak eta beren ekipajea garraiatzeko zerbitzuei dagozkien bitartekaritzak zerbitzuak, hau da, besteren izenean eta kontura egindakoak, hirugarren xedapen gehigarriaren 3. idatz zatiarekin bat etorriz.

d) Bereiz adierazi beharko dira bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura lanbide ordain-sariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko edo bestelako eskubideak kobratzeko eragiketak, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean foru dekretu honen 1.3 artikuluan xedatutakoaren arabera kobrantza egiten duten sozietate, elkarte, profesionalen elkargo edo bestelako erakundeak badira.

h) Adierazi egin beharko dira aitortpenean aipaturiko pertsona edo entitateetako bakoitzarengandik dirutan jaso diren 6.000 euro baino gehiagoko zenbatekoak.

i) Alde beren artean egiten diren beste eragiketa batzuetatik, egiten baldin badira, bereiz adierazi beharko dira egindako nahiz egin beharreko higiezin eskualdaketen ordain moduan jasotzen diren diru kopuruak, haiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari loturik dauden emateak baldin badira.

j) Alde beren artean egiten diren beste eragiketa batzuetatik bereizita adieraziko dira, hala badagokio, Balio erantsiaren gaineko zergako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak. Eragiketa horiek irizpide hauei jarraituz adieraziko dira:

– Sortu diren unean, eragiketa horiei araubide berezia aplikagarri ez balitzaie bezala, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 75. artikuluan xedatutako sortzapenerako arau orokorrari jarraituz.

– Horien sortzapen osoa edo sortzapen zati bat gertatzen denean kasuan kasuko zenbatekoetan, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 163 terdecies artikuluan jasotako irizpideei jarraituz.

k) Eragiketak, hala badagokio, alde beren artean egiten diren beste eragiketa batzuetatik bereizita adieraziko dira, subjektu pasiboa jasotzailea denean, urtarrilaren 19ko Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, 84. Bat.2. artikuluan ezartzen denari jarraituz.

l) Alde beren artean egiten diren beste eragiketa batzuetatik bereizita adieraziko dira, hala badagokio, Balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden eragiketak urtarrilaren 19ko Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergarenak, bere eranskinaren bosgarren idatz zatian definitzen duen aduana araubideaz besteko gordailu araubideari lotutako edo lotzera zuzendutako ondasunak izateagatik."

Bost. 5. artikulua 1. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratu da:

"1. Zergapekoak aitortpen urtean egindako eragiketak dira urteko aitortpenean aitortu beharrekoak.

Horretarako, eragiketak honako aldian egin direla ulertuko da: apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eragiketen egiaztagiritzat balio duen faktura edo kontabilitate agiriaren erregistro idaztoharra egin behar den aldian.

Dena den, aurreko artikulua 1. idatz zatiaren j) letraren hirugarren paragrafoan aipatzen den Balio erantsiaren gaineko zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak adieraziko dira horien sortzapen osoa edo zati baten sortzapena gertatzen den urte naturalean, kasuan kasuko zenbatekoetan."

Bigarren artikulua. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 foru Dekretua, fakturazio betebeharrak arautzen dituena

Bat. 3. artikulua 2. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

"2. Zergari buruzko foru arauko 20. artikuluko lehenengo idatz zatiko 16. eta 18. zenbakietan (18. zenbakiko a - n bitarteko letrak) azaltzen diren zerbitzugintzengatik ez dago faktura egin beharrik, ondoko kasuan izan ezik:

Zerbitzugintza horiek kasu bakoitzean aplikagarri zaizkien kokapen erregelen arabera zergaren aplikazio lurraldean edo Europar Batasuneko beste estatu batean egin direla ulertzen denean eta, aldi berean, zergari lotuta eta salbuetsi gabe daudenean.

Zerbitzugintza horiek, aplikagarri zaizkien kokapen arauen arabera, zergaren aplikazio eremuan, Kanarietan, Ceutan edo Melillan egin direla ulertzen denean, zergari lotuta eta salbuetsita daudenean eta aseguru eta kreditu erakundeak ez diren enpresaburu edo profesionalek eginak direnean jarduera ekonomikoaren egoitzaren bidez edo aipatutako lurraldean dagoen establezimendu iraunkorraren bidez.”

Bi. p) letra gehitzen zaio 6. artikulua 1. idatz zatiari, eta honela geratzen da:

“p) Kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen denean, “Kutxa irizpidearen araubide berezia”ren aipamena egin behar da.”

Hiru. 7. artikulua 1 idatz zatiaren i) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“i) Araudi honetako 6.1 artikulua j) - p) bitarteko letretan aipatzen diren kasuetan letra horietan ezartzen diren aipamenak egin behar dira.”

Lau. 3. idatz zatia gehitzen zaio 11. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

“3. Balio erantsiaren gaineko zergaren arauaren IX. tituluko X. kapituluaren arautzen den kutxa irizpidearen araubide berezira lotuta dauden eragiketetan, horiek egiten diren unean bertan egin behar dira fakturak; aldiz, eragiketaren jasotzailea enpresaburua edo profesionala bada eta horrela jarduten badu, eragiketak egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin behar dira fakturak.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 10a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

AITOR URIBESALGO LORENZO

Ogasun zuzendaria

JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO